

Nola idatzi...

Hizkuntzalaritza

Wikipedia editatzean, batzuetan beldur pixka bat ere izaten dute hasiberriek; bereziki, eskolako lan baterako lehendabiziko aldiz Wikipediara ekarpena egiten ari diren ikasleek. Gida hau Wikipediara historiari buruzko edukiak gehitzeko lana eman zaien ikasleentzat da.

Izan zaitez zehatza

Wikipedia baliabide bat da, milioika pertsonak historiari buruzko informazioa jasotzeko erabiltzen dutena. Wikipedian historiari buruz irakurtzeko arrazoiak historia bezain askotarikoak dira. Pertsona eta gertaera historikoei buruzko eduki zehatz eta objektiboak dokumentatuz eta partekatuz, lagunduko duzu ziurtatzen mundu osoko jendeak giza jakintzaren eremu zabalago bat duela eskura.

Uler itzazu jarraibideak

Har ezazu denbora, hemengo iradokizunak irakurri eta ulertzeko; iradokizun hauek Wikipediara egiten dituzun ekarpenei baliorik handiena emateko bidea emango dizute. Jarraibide hauek betetzen ez dituen zerbait argitaratzen baduzu, hori konpontzeak denbora eta ahalgina eska dezake: edukia hobetzen eman zenezakeen denbora eta ahalegin bat. Jarraibide hauen barruan lan egiten eroso sentitzen ez bazara, esaiozu zure irakasleari ea Wikipediaz kanpoko lanen bat emango dizun.

Jardun ezazu beste editoreekin

Wikipediako esperientziaren parte bat da beste editore batzuen iritziak jaso eta haiei erantzutea. Ez itxaron azken eguneraino ekarpen bat egiteko; bestela, ohar eta iradokizun lagungarriak galduko dituzu. Wikilariak zure lanari buruzko galderei erantzun diezaiekete, edo beharbada galderak egingo dizkizute. Galderarik egiten badizute, erantzun iezaiezu. Eskertu iezaiezu emandako laguntza, eta lan egizu haiekin batera, artikulua hobetzeko. Beharbada aldaketak egingo dizkiote zure lanari; edo, jarraibide hauek betetzen ez baditu, artikulutik ezabatuko dute. Horrela gertatzen bada, ez ezazu berriz eduki hori sartu besterik gabe! Galdetu iezaiozu edizioa

egin duenari, ea zergatik egin duen, eta ea nola hobetu dezakezun. Eztabaida funtsezko osagaia da Wikipediako prozesuan.

Saihestu ezazu hurbiletik parafraseatzea

Erabil itzazu zeure hitzak. Plagioa egitea, testuak kopiatuz edo hurbiletik parafraseatuz (hau da, hitz gehienak aldatuz, baina testu originalaren egitura eta esanahia mantenduz), arauen kontrakoa da.

Plagioa egitea zure unibertsitateko ohore lege akademiko urratzea da. Plagioari, Wikipedian, beste wikilari batzuek antzemango diote, edo tresna automatikoei. Hori gertatzen denean, beharbada zure lana ezabatuko dute, eta online erregistratuta geratuko da plagio gertaera bat zure kontuari lotuta. Baliabide eta autore estandarrak ere —hala nola ikasliburuak— egile eskubideen pean daude, eta inoiz ez dira zuzenean kopiatu behar. Plagioari buruzko arauak Wikipediako alde guztietan aplikatzen dira, baita zure proba orriko zirriborro eta oharrei dagokienez ere.

Arazo hori saihesteko modurik onena da ziurtatzea zeure materiala benetan ulertzen duzula, eta horri buruz zeure hitzekin idazten duzula. Hurbiletik parafraseatzea zer den garbi ez badakizu, jar zaitez harremanetan zure unibertsitateko Euskara Zerbitzuarekin.

Jar ezazu zeure aletxo

Har ezazu astia arauak eta jarraibideak ulertzeko. Beharbada beldurgarri samarrak irudituko zaizkizu, baina aurki zure jakintzen eta zentzuaren ekarpena egiten ari zure zara, zuk eta milioika lagun gehiagok egunero erabiltzen duzuen baliabide batera.

Artikulu bat aukeratzea

- Aukera itzazu gaikideek berrikusitako liburu edo aldizkarietan —adibidez, *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria*, *Language* edo *The Journal of Communication* aldizkarietan— literatura interesgarri eta ugaria duten gaiak, Wikipedia artikuluetan ondo garatu gabe daudenak. Miatu itzazu zerikusia duten artikulua, ea gai hori beste izen batekin landuta dagoen.
- Nahi baduzu, bila ezazu iturri interesgarri asko dituen gai bat, lehendabizi; gero, aukera ezazu Wikipediako artikulu bat, garatzeko, aurkitu duzun hartan oinarrituta.
- Landu ditzakezun artikulua bilatzeko beste bide on bat da bilaketa laukian [WP:zirriborroak](#) idaztea.

Nola jakin ea zerbait Wikipediarako nabaria den?

Gogoan izan hizkuntzalaritzako gai batzuk ez direla Wikipediarako aski nabariak. Bestek gaiari buruz esan duena hartu behar duzu oinarritzat. Hizkuntza bati edo teoria bati buruz literatura akademiko fidagarriarik ez badago, beharbada gai hori ez dago prest Wikipedia artikulu baterako. Ez egin kanpainarik gai baten garrantziaren alde. Hel iezaiezu datu egiaztagarriari, eta idatz ezazu modu ulergarrian..

Zer da sarrerako atala?

Sarrerako atala Wikipediako artikulu bateko lehenengo atala da. Sarrerako atal on batek bi-zpahiru paragrafotan artikulu osoa laburbiltzen du, testuingurua azaltzen du, eta gaiaren alderdi garrantzitsu guztiak aipatzen ditu. Lehenengo esaldiaren hasiera izan ohi da **artikuluaren gaiaren izena** letra lodiz; esaldi horretan definitzen da gaia, eta hor edo hurrengo esaldietan adierazten da zergatik den gaia garrantzitsua.

Wikipediako artikulu bat idazteko estrategia ona izan daiteke lehendabizi sarrerako atalaren zirriborroa egitea; gero, zirriborro hori artikulua gainerakoa idazteko eskematzat erabil dezakezu. Lan horretan aurrera egiten duzun eran, berriki ezazu aldizka sarrerako atal hori, artikulua gorputza ondo laburbiltzen duela ziurtatzeko.

Idazten ari zaren artikulua antolatzea

Artikulu bakoitza bakarra izango da. Hemen ageri diren atalak proposamen soila dira: gehitu, kendu edo berrantolatu itzazu atal hauek artikulua beharretara egokitzeko.

Hizkuntza edo dialekto bati buruz idaztea

- Sarrerako atala: Artikulu osoa laburbiltzen duten 1–4 paragrafo.
- Sailkapena: Zein da hizkuntza horren sailkapen genetikoa?
- Historia: Zer hizkuntzatatik eratorri da, eta noiz hasi zen harengandik edo haiengandik banantzen? Nork hitz egiten zuen hizkuntza hori? Halaber, deskriba itzazu hizkuntzak izandako aldaketak.
- Hedadura geografikoa: Non hitz egiten da? Zenbat jende hitz egiten dute? Estatus bereziren bat (adibidez, ofizialtasuna) ba al du inon? Era berean, aldaerak, dialektoak eta hizkuntza eratorriak aipatu behar zenituzke.
- Fonetika eta fonologia: Informazio ugari baldin badago, bere artikulu berezia izan dezake atal honek.
- Gramatika: Labur azal ezazu zer den bakarrik hizkuntza horren gramatika. Morfologiak eta sintaxiak beren azpialak izan ditzakete.
- Hiztegia: Aipa itzazu hiztegi arloko ezaugarri apartak. Hizkuntza horretan asko al dira hitz mailegatuak, ohorezkoa, tabuzkoak eta abar?

Adibide ona duzu «Euskara» artikulua (nahiz eta, testu hau idatzi den unean, «Historia» atala osatzeko dagoen, eta artikuluko paragrafo bakoitzean iturri akademikoen erreferentziak beharko lirakeen).

Hizkuntzalaritzako kontzeptu bati buruz idaztea

Kontzeptuei buruzko artikuluek zure iturrietan oinarrituta hartuko dute forma. Har ezazu ondorengo hau jarraibide orokor gisa, eta egokitu ezazu kasu bakoitzera.

- Sarrerako atala: Artikulu osoa laburbiltzen duten 1–4 paragrafo.
- Defini ezazu kontzeptua: Zer da? Esplika ezazu

euskara erraza erabiliz. Ideia edo ikuspegi bakoitza azpiatal batean azaldu.

- Historia: Adieraz ezazu kontzeptuaren eta haren bilakaeraren historia pixka bat. Aipa itzazu ekarpenen egileak, bai eta aurrekari izan zituzten esperimentu edo teoriak.

- Kritikak: Zer muga ditu teoria horrek? Ba al da eztabaidarik? Deskribatu itzazu atal honetan.

Bila ezazu zure gaiaren antzekoren bat lantzen duen artikulua bat, eredutzat erabiltzeko.

Iturri fidagarriak erabiltzea

Nola identifikatu ea zerbait hizkuntzei buruzko Wikipedia artikulua batean sartzekoa den ala ez? Lehendabizi, datu egiaztatuak dituzten hainbat iturritan landua egon behar du. Iturri horiek argitaratuak izan behar dute; eta, oro har, hirugarren batek —editore batek, gaikide batek— berrikusiak, zehatzak direla egiaztatzen.

Iturri egokien artean daude liburuak, testuliburuak, eta gaikideek berrikusitako eta argitaratzaile fidagarrien aldizkarietan agerturiko lanak. Betiere, hizkuntzalaritzako adituek idatziak. Literatura-aztertzeak iturri egokiak dira teoria eta metodoei buruzko artikuluetarako.

Oro har, bidaia gidaliburuak —berdin dio inprimatuak edo Interneten argitaratuak diren— iturri pobreak dira hizkuntza informaziorako, eta saihestu egin beharko lirateke.

Iturriak nola aipatu jakiteko, Wikipediako bilaketa barran teklea ezazu [WP:Erref](#)

Karaktere bereziak erabiltzea

Hizkuntza bati buruzko Wikipedia artikulua bat editatzen duzunean, beharbada karaktere bereziak beharko dituzu; batez ere, Nazioarteko Alfabeto Fonetikokoak.

Karaktere horiek zure teklatuaren bidez aktibatu ahal izaten dira Wikipedian. Gainera, karaktere berezi horiek

Japoniera	
日本語, <i>nihongo</i>	
日本語	
<small><i>nihongo</i> («japoniera»), Japoniar idazkera sisteman</small>	
Ahoskera:	NAF: /nihoŋo/ [niho̞ŋo] , [niho̞ŋo]
Lurralde eremua:	Japonia, Hawaii, Brasil, Guam, Marshall Uharteak, Palau, Taiwan
Eskualdea:	Ekialdeko Asia
Hiztunak:	126 milioi
Rankina:	9
Hizkuntza familia:	Japonikoa Japoniera
Estatus ofiziala	
Hizkuntza ofizialtza duten lurraldeak:	Angaur uhartea (Palau) Japonia <i>de facto</i>
Erakunde araugilea:	Ez du (Japoniako Gobernuak eragin handia du)
Hizkuntza kodeak	
ISO 639-1:	ja
ISO 639-2:	jpn
ISO 639-3:	—
Oharra :	baliteke orri honek Unicode kodearekin emandako NAF fonetika ikurrak edukitzea.

eta beste batzuk aurkituko dituzu Wikipediako Ikusizko Editorean; horretarako, karaktere bereziak gehitu nahi dituzun atalean, klika ezazu «Aldatu». Gero, klika ezazu «Ω» ikurrean, karaktereen liburutegia irekitzeko.

Taula bat sortzea

Taulek hizkuntza baten funtzioak erakusten lagun dezakete. Hor agertu ditzakezu zenbakiak, ahoskera gidak, edo adibidezko esaldiak.

Taula bat gehitzeko, klika ezazu «Aldatu», taula agertzea nahi duzun atalean. Goiko barran, «Txertatu» aukera ikusiko duzu. Klika ezazu hor, eta hauta ezazu «Taula». Kurtsorea taularen barruan dagoen laukian jarri ondoren ezkerreko botoia sakatuta, taularen garaiera eta zabalera ezarriko duzu. Gero, idatz ezazu zuzenean lauki bakoitzaren barruan.

Hizkuntza edo dialekto bati buruz idaztea

Infotaula batek hizkuntza bati buruzko ikuspegi orokorra ematen du, begiratu bakarrean. Eskuinean, japonieraren infotaula duzu. Hona hemen nola egin bertsio sinpleago bat, idatzi nahi duzun artikulurako.

Lehenik, «Aldatu iturburu kodea» aukera erabiliz, gehitu ezazu beheko testu hau artikulua hasiera-hasieran.

```
{{Hizkuntza infotaula|nazioa=|1 familia=|hiztunak=|2 familia=|izena=|famiaren=}}|estatuak=|kolorea=
```

- Gero, oinarrizko informazioa idatzi beharko zenuke, berdintza ikur bakoitzaren eskuinean.

- Hona hemen bakoitzaren esanahia:

- Izena: Hizkuntzaren edo dialektoaren izena. Adibidez, japoniera.

- Estatuak: Zein estatu burujabetan hitz egiten den hizkuntza. Estatu bakoitzaren izenarekin, sor ezazu lotura hari buruzko Wikipediako artikulura.

- Nazioa: Zein estatu burujabetan den ofiziala hizkuntza. Ez bete eremu hau, inon ofiziala ez bada.

Wikipedian hizkuntza familia eta taldeetarako erabilitako atzealde koloreak

Afro-asiarra	Nilo-sahararra	Niger-Kongo	Khoisan (eremuzkoa)		
Indoeuroparra	Kaukasoarra (eremuzkoa)	Uralikoa	Dravidikoa	Altaitarra (eremuzkoa)	Paleosiberiarra (eremuzkoa)
Sino-tibetarra	Hmong-miena	Tai-kadaia	Austroasiarra	Austronesiarra	Papuarra (eremuzkoa)
Eskimo-aleutiarra			Na-dene (eta dene-yeniseiarra)	Amerikarra (eremuzkoa)	
Kreolera/Pidgina/Nahasia	Hizkuntza isolatua	Keinuzkoa	Eraikia	Saikatugabea	
Ikus, gainera		Wikiproiektu:Hizkuntzak			

- Hiztunak: Zenbat jende hitz egiten dute? Erabil ezazu artikuluan erreferentzia duen iturriren bat, edo iturri estandar bat, hala nola Ethnologue webgunea-ren edizio berriena.
- Familiaren kolorea: Wikipediako bilaketa barran idatz ezazu Txantilo:HMOSAIKOA testua, hizkuntza familien taula bat ikusteko.
- Familia: Erabil ezazu eremu hau familia zehazteko: 1 familia izango da hizkuntza talde orokorra, horren barruan 2 familia izango da talde zehatzagoa, eta abar.

Wikipediako bilaketa barran idatz ezazu Txantilo:Hi-zkuntza infotaula testua, askoz aukera gehiago dituen txantilo bat ikusteko. Txantilo hori erabil dezakezu hizkuntza bati buruzko artikulua hasieran.

Idazteko aholkuak

- Wikipediako artikulua jende guztiarentzat idazten dira, eta ez hizkuntza arloko adituentzat. Saihestu argota; eta termino akademikorik erabiltzen baduzu, labur azaldu ezazu euskara errazean.
- Ahal bada, saihestu itzazu laburtzapenak (adibidez, EGLU, dat. edo sing.), Wikipediaren irakurle askok ez



Argitalpen honetan jasotako edukia eta irudiak Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 lizentziaren pean daude erabilgarri, besterik adierazi ez bada.

Wiki Hezkuntzako marka erregistratzekotan dago. Wikipediako logoak eta hitz markak Wikimedia Fundazioaren marka erregistratuak dira. Marka horien erabilera Wikipediaren marka politikaren mende dago, eta horiek erabiltzeko behar bada beharrezkoa izango da baimena (https://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark_policy). Wikipediaren markei buruzko galderak egiteko, idatz ezazu trademarks@wikimedia.org helbidera (ingelesez).

Eskerrik asko wikilari hauei: User:Another Believer, User:AustralianRupert, User:Cinderella157, User:Sadads eta User:Wehwalt, gida hau egiteko laguntza baliotsua eman dutelako.

Itzultzailea: Xabier Armendaritz.

baituzte berehala ulertuko.

- Zure gaiari buruzko testuinguru zabala zehaztasunez azaltzeko laburpenak idatzi edo atal berriak sortu beharrian, jar ezazu wikilota bat. Esaterako, idazten ari zaren artikulua «hizkuntza estandarra»ri lotutako teoria bati buruzkoa baldin bada, sor ezazu lotura bat, hizkuntza estandarren artikulura jotzeko.

Idazten ari zaren artikulua egituratzeari buruzko ideiak nahi badituzu, begira itzazu familia edo eskualde bereko hizkuntzei buruzko Wikipedia artikulua.

Azken gogoetak

- Ez utzi lana azken unerako! Wikipediako artikulua on eta fidagarriak idazteko, denbora behar da. Ez itxaron azken minuturaino. Blokeatuta gelditzen bazara, eska iezaiozu irakasleari epe luzeagoa; hobe duzu hori, Wikipediara jarraibide hauek betetzen ez dituen edukia gehitzea baino.
- Wikipediara ekarpenak egiteari buruzko beste galderarik baldin baduzu, galdetu zure ikastaroko orrian zehaztutako Wikipediako edukietako adituari, edo idatzi zure galdera Txokoan.
- Begira ezazu idazten ari zaren artikuluko eztabaida orrian. Interesgarria izan daiteke zure artikulua nola hazten den ikustea, baina ez ahaztu behar bada iruzkinak eta iradokizunak jasoko dituzula beste wikilari batzuegandik, eta horiek eztabaida orrian agertu ohi dira.



E U S K A L

WIKILARIEN

K U L T U R A E L K A R T E A